

ANTZINAKO EGYPTO:

IRUDIAREN BOTEREA

Paulo Agirrebaltzategi.

Ein Karem-etik abiatzen baldin bazara Egipto bisitatu eta aurkitzera, ezin duzu baztertu **Magnificat** kantaren oihartzuna, Ein Karem honetako mendiek, hain zuzen, beste inon baino ozenkiago belarrietara itzultzen dizutena. Izan ere, hementxe kokatzen da Ama Birjinak bere Isabel lengusinari egindako bisiraldia, eta hementxe jarzen du Luka Ebanjelariak Mariaren kanta "*iraultzailearen*" lehen doinua.

Magnificat-en exegeta modernoek, berriz, Exodoaren kanta berriztat hartzen dute funtsean: hau da, Egipto faraoi handien botere handia txikitu eta israeldar zapalduen askapena burutu zuen Jainkoaren gorainpentzat. Horregatik, Exodoaren doinuak daudela Mariaren kanta, horren oihartzuna belarrietan duzula zoaz Egiptoko lurralde-tara.

Exodoko epopeia handi eta miresgarriak, ordea, ez du Egipton inolako arrastoriak utzi. Antzinako Egiptoko 3.000 urtetako eta 30 dinastietako faraoien inperio luzearen historiak ez du seguruenik lerrotxoren bat baino gehiago, israeldarren tribuaren gorabeherak gogoratzeko. Eta monumentuetan noski ez du ia arrastorik betere utzi.

Giza-ko eta Sakharaiko piramide erraldioen geometria misteriozkoa eta barrunbe labirintikoa, Abu Simbel-eko edo Luxor-eko edo Abydos-eko tenplu oparoetako arkitekturazko eta irudizko poema amaigabea, eta Erregeen Bailarako hilobi sakonetako teologia eskatologikoaren narrazio bizia: guzti horien ikusteak, begizatzeak eta mires-teak handitasunaren, edertasunaren, ikusgarritasunaren sentsazioz betetzen du zure izpiritua. Irudien mundu aberats eta ikusgarria...

Gero hortik, Exodoaren tea Israel-darren zapalkuntzaren oroipenaren indarrak eraginda, Niloko deltaren ekialdera baldin bazoaz, Pi-Ramese, Piton edo Avariseko hiri eta lurraldeetako az-ternen bila, ez duzu idealisten desilusionerako. Izan ere, Egipto monumental ikusgarriaren bisita-modukoaz gain, badagio Egipto ideal amesgarriaren bisita egiteko modua ere. Baina turismo-agentzientzako ez du erakarmen handirik bigarren programa-modu horrek, irudirik gabekoda delako, Niloren del-tako landa zabal, berde eta argitsuen paisaia ederra ez baldin bada. Antzinako Egipto, Piramideek, Esfingeak, Tenpluek eta lurpeko Hilobi sakonek daukate definitua bisitarientzat.

Egiptoko antzinako zibilizazio ikusgarria monumentu handi eta irudi amaigabeetan da ikusgarri. Irudiaren zibilizazioa eta irudiaren erlijia beti: arkitektura erraldoian nahiz eskultura maiestatikoa agertu irudiaren filosofia hori.

Baina antzinako Egiptoko zibilizazio erlijiozkoa ez da irudi-filosofia sinboliko soilaren adierazgarria; boterearen adierazgarria de irudia bera. Horregatik antzinako Egiptoko zibilizazio monumeltala erabat boteredunen —faraoen eta beraien ministrari eta apaizen— zibilizazio erlijiozkoztat agertzen zaigu: Boteredunen erlijio ofiziala. Jainkozkoaren mila eratako irudikapena ere faraoiaren aginte eta boterearen sostengu eta euskarriztat ulertu behar dela dirudi. Eta boterearen erlijioa irudian mamitu eta gauzaten, irudia bera boteredun bihurtu da, boterearen ezaugarri ezezik.

Egiptoko bisitaldia prestazteko Institutu Biblikoak antolaturiko mintegiko gaien artean bereziki deigarria eta jakinmengarria gertatu zitzaidan honako hau: "*Pobrearen Erlijioa*" zeri-

tzana, alegia. Titulu horren pean gaia aurkeztu zuenak "*erlijio pertsonal*" edo "*erlijio herritar*" gisa ulertzen zuela konturatu nintzen, tituluko "*pobrearen erlijioa*" izenpean: erlijio pertsona, erlijio ofizial edo instituzionalaren aurka; eta erlijio herritarra, boteredunen erlijioaren aurrea aurre.

Ba ote zegoen antzinako Egipton erlijio pertsonalarentzat edo erlijio herritararentzat lekurik? Mendeen joanak utzi dituen monumentuetan ez da agertzen horrelakorik. Testuetan, ordea, oroigarri eta lekukotza gehiago aurki daiteke. Azken batez, pobreen eta herri xumearen erlijioa irudi gabekoa gertatu da, edo irudi xumeena, historia luzerako eta zibilizazio monumentalerako aztarnarik uzte ez dutenena. Alde horretatik ez "*historikotasunik*" eta ez "*ikusgarritasunik*" du erlijio herritar-rrak. Boteredunen zibilizazio erlijiozko monumentalaren itzalpean gelditzen da ahazturik; agian bisitari edo turista zoro eta idealistaren batzuren amesgai.

Tenplu oparoetako eta hilobi sako-netako estatua-sailetan eta erliebezko irudi-poematan, herri xumeak leku xumea du Egiptoko erlijiozko bizitzan: beti ere faraoiaren, apaizen eta handizkien irudietan zentratua eta horien adierazpen erlijiozko maiestatikoei begira. Ez ote zuen herriak bere erlijiozko bizitzaren andierapen autonomorik? Boteredunen erlijio ofizialaren irudikapen monumentalak suntsiturik utzi du nolnahi ere.

Irudiaren boterearen apoteosi erlijiozko Abu Simbel-ekoan eta beste zenbait tenplutan nabarmentzen da, faraoiaren beraren irudia jainkoen irudien parean jarraitu ikusten dugunean. Jakina, faraoia Jainkoaren irudia omen ze, eta hortxe zetzan, hain zuzen ere, haren aginte eta boterearen oinarria. Gizon-emakume guztiak ez al ziren Jainkoaren irudi? Hala dio testu batzuetako teologiak. Baina teologia horrean ez du lekurik boteredunen erlijio monumentalean.